

**2009KO URTARRILAREN 20AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeia

HILABETEA: Urtarrila

URTEA: Bi mila eta bederatzia

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Julio Herreros Serna

ETORRI GABEAK: Jon Kortaberria Lasa

Begoña Lasa Royuela

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2008ko abenduaren 16ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute, berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK ESLEITZEA. Joan Iturralde plazako obrak birmodatzeko obrak esleitzea.

2009ko urtarrilaren 13ko Kontratazio-Mahaiaren ondorengo proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

I.- Gobernu Batzordeak 2008ko urriaren 14ko datarekin egindako ohiko bileran, ondorengo erabakia hartu zuen:

Lehenik. Iturralde plaza birmoldatzeko obrak kontratatzeko prozedura irekiaren bitartez kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz.

Bigarren. Aipatutako obrak lehiaketa bidez kontratatzeko deialdi publikoa egitea, lizitazio prezioa, 871.639,02 €koa BEZ barne izanik eta egikaritze-epea 6 hilabetekoa.

II.- Deialdia 2008ko azaroaren 12an argitaratu zen eta aurkeztutako bi plikak irekitzeko ekintza berriz, 2008ko abenduaren 16an izan zen.

Aurkeztutako eskaintza ekonomiko eta dokumentazioa aztertu ondoren, eskaintzak puntuatu egin dira, baldintza plegu administrazio boko 20. artikuluan aurreikusitako esleipen-irizpideen arabera.

1.Prezioa/Precio.....	0 - 70 p.
.....	0 - 10 p.
2. Obraren azterketa/Estudio de la obra. Lanen Egitaraua/Programa de trabajos.	0 - 10 p.
3. Epeak: partzialak eta guztira/Plazos parciales y total.....	0 - 5 p.
4.Obrari atxikitutako pertsonala eta asistentzia teknikoak/Personal asignado a la obra y asistencias técnicas.....	0 - 5 p.
5. Makinaria eta obrei atxikitutako baliabide laguntzaileak/Maquinaria y medios auxiliares adscritos a las obras.....	

Horren ondorioz, lortutako emaitza ondorengoa izan da:

ESTUDIO DE VALORACION OFERTAS ACONDICIONAMIENTO JOAN PLAZA ITURRALDE															
LICITACION		OFERTANTES						PUNTUACION							
Importe	Plazo	CONTRATISTA	Propuesta Económica	Plazo	Propuesta Media	Baja Media	Limites Baja	Baja Oferta	Precio	Estudio Obra	Plazos	Personal Asignado	Maquinaria	TOTAL	
871.639,02	6,00	CNES URBYCOLAN	678.913,40	4,00	732.587,65	15,95	0 - 30,95	22,11	70,00	10,00	10	5	4	99,00	
		CNES CODOSA - IRUÑA	683.333,51	5,50				21,60	68,73	10,00	2,5	5	5	91,23	
		CNES ARKAITZA SA	688.316,77	5,00				21,03	67,30	9,00	5	3,5	4	88,80	
		CNES DUMBOA SA	691.633,94	4,50				20,65	66,35	9,00	7,5	2,5	4	89,35	
		CNES ECHAAIDE SA	701.568,09	5,077				19,51	63,50		4,615			68,12	
		CNES GALDEANO	721.272,31	4,00				17,25	57,85		10			67,85	
		CNES AZYSA	728.609,48	5,00				16,41	55,75		5			60,75	
		GUILLERMO IBARGOYEN S	731.919,41	5,00				16,03	54,80		5			59,80	
		CNES EGUZKI - NAIDER C	738.405,30	4,50				15,29	52,94		7,5			60,44	
		CNES GOITU SL	745.897,89	5,50				14,43	50,79		2,5			53,29	
		CNES FRESNEDA	749.759,79	5,00				13,98	49,68		5			54,68	
		CNES ALZOLA SA	792.144,09	5,00				9,12	37,52		5			42,52	
		CNES CAMPEZO - ELEKTR	798.565,55	5,00				8,38	35,68		5			40,68	
		CNES OTEGI - GAZTANAG	805.887,52	5,00				7,54	33,58		5			38,58	
				0											
		CNES KOLDO KEREJETA S	764.558,13												
		CNES PEDRO IPARRAGUIF	767.578,41												

Esleipen-irizpide desberdinen azterketa, baloratu diren eskaintzeekiko ondorengo da:

OBRAREN AZTERKETA (10 puntu)

Lizitatzailleek orokorrean azterketa zuzena aurkezten dute, baina URBYCOLAN eta CODOSA + IRUÑA enpresek aurkezten dutena zehatzagoa da. Beraz, lortutako puntuazioa ematen da aipatutako koadroan azaltzen dena da.

EPEAK PARTZIALAK ETA EPEA GUZTIRA (10 puntu)

Atal honetan eskaintzak honela puntuatu dira: obrak egiteko denbora gutxiena behar duenari gehiengo puntuazioa eman zaio.

ATXIKITUTAKO PERTSONALA ETA ASISTENTZIA TEKNIKOAK (5 puntu)

Lizitatzailleek obrak egiteko nahiko pertsonala aurkezten dute, baina URBYCOLAN eta CODOSA + IRUÑA enpresen zehaztasuna handiagoa da.

MAKINARIA ETA OBRARI ATXIKITUTAKO BALIABIDE LAGUNTZAILEAK (5 puntu)

Enpresak eskaintza zuzena aurkezten dute, makinaria eta obrari atxikitutako baliabide laguntzailei buruz. Dena dela, CODOSA + IRUÑA enpresak puntuazio gehiena (5) lortu du, azaldutako xehetasunagatik.

Horren ondorioz, Kontratazio-mahiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Iturralde plaza birmoldatzeko obrak kontratatzeko **URBYCOLAN, S.L.**, enpresaren alde behin-behineko esleipena egitea, **678.913,40 €ko prezioan, BEZ barne.** Egikaritze epea, berak egindako eskaintzaren arabera, 4 hilabetekoa izango da.

Bigarren. Adjudikaziodunak **29.263,51 €ko** behin betiko fidantza aurkezten duenean, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako eta kontratua sinatzeko Alkateari baimena ematen zaio. Behin betiko fidantza, behin-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hamabost eguneko epean aurkeztuko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek propsamenarekiko adostasuna azaldu dute.

3.- OBRA-PROIEKTUAK. Toki inbertsioetarako estatuko finantzazioa lortzeko hainbat proiektu onartzea.

Ondoren aipatzen diren proiektuak onartu dira eta beraiek gauzatzeko, toki inbertsioetarako estatuko finantzazioa lortzeko, eskaera egitea erabaki da:

1.- Oinezkoentzako guneko publikoak urbanizatzeko obrak: Alkartasuna Lizeoko sarrera. 229.764,73 € (bez barne).

2.- Oinezkoentzako guneko publikoak urbanizatzeko obrak: Zazpiturrieta kalea. 113.368,92 € (BEZ barne).

3.- Oinezkoentzako guneko publikoak urbanizatzeko obrak: Nekolalde—Garmendia Otaola. 231.658,38 € (BEZ barne).

4.- Oinezkoentzako guneko publikoak urbanizatzeko obrak: Karobi-Ikasleen Zeharkalea. 82.052,24 € (BEZ barne).

5.- Oinezkoentzako guneko publikoak urbanizatzeko obrak: Igartza Oleta fase I. 185.612,01 € (BEZ barne).

6.- Oinezkoentzako guneko publikoak urbanizatzeko obrak: Esteban Lasa, S. Inazio gurutzebidea. 116.901,02 € (BEZ barne).

7.- Oinezkoentzako gune publikoak urbanizatzeko obrak: Errekarte (1etik 39rako zenbakiak). 150.888,66 € (BEZ barne).

8.- Oinezkoentzako gune publikoak urbanizatzeko obrak: Lizeo plazako aparkalekuak. 231.524,98 € (BEZ barne).

9.- Oinezkoentzako gune publikoak urbanizatzeko obrak: Andre Mari I fasea. 92.642,24 € (BEZ barne).

10.- Bide publikoak urbanizatzeko obrak: Usurbe baserrirako bidea. 58.124,12 € (BEZ barne).

11.- Irigoyen, 25 Areako poligono industrialia urbanizatzeko obrak: 696.274,70 € (BEZ barne).

12.-Ingurugiroa babesteko obrak: hesi akustikoak. 100.000,00 € (BEZ barne).

Ezagutzera eman da Beasaingo Udalari guztira tokatzen zaion dirulaguntza, 2.288.811,99 €koa dela.

4.- AHOLKULARITZA BATZORDEA. Udalerrian parte hartzen duen elkarteetako kideak izendatzeko proposamena.

Udalbatza Osoak 2008ko urriaren 30ean onartutako Udal Planeamenduko Batzordearen Erregelamenduan adierazten da, besteak beste kide izango direla, jarduera udalerrian garatzen duten elkarteetako bi partaide, batzordearen lehendakariak aukeratuta, udalean ordezkariak izango diren talde politikoek proposatuta. Hori horrela izanik, Alkateak proposatu du Asmube eta Erretiratuen elkarteetako ordezkariak izendatzea.

Fernando Boadak adierazi du, proposamen horren aurrean abstenitu egingo dela.

Bilerara etorri diren besteak ados daude.

Beraz, onartu egin da Alkatek egindako proposamena eta horren ondorioz, bi elkarte horiei eskatuko zaie, udalari jakinarazteko zeintzuk izango diren Aholku Batzordean parte hartuko duten pertsonak.

5.- HITZARMENAK:

a- 8. Sektoreko kolektorea lekualdatzeko Foru Aldundiarekin hitzarmenaren edukia onartzea.

Alkateak ezagutzera eman du, Foru Aldundiarekin 8. Sektoreko kolektorea lekualdatzeko hitzarmena onartzea Udalbatzarrari proposatuko

zaiola hurren egiten bileran. Hitzarmen horren bidez Foru Aldundiak obra horrek duen kostuaren (176.745,33 €) %60a finantzatuko du, bere garaian Foru Aldundiak kolektorearen trazatua gaizki exekutatu zuelako. Izan ere hoditeria eraikitzeko diren lursailetatik bideratu zuen.

b- Bizigune programa garatzeko hitzarmenari buruzko informazioa.

Alkateak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte gaietarako Sailarekin sinatzeko hitzarmen-proposamenaren berri eman du. Hitzarmen horretan adierazten dena da, Beasaingo Udalaren interesa "Bizigune" programan sartzeko, hutsik dauden etxebizitzak merkatuan jarri ahal izateko, beharra duten bizikidetzako unitateentzat.

c- Ausartondo enpresarekin sinatzea proposatzen den hitzarmenari buruzko informazioa.

Alkateak, Ausartondo enpresarekin sinatzea proposatzen den hitzarmenaren berri eman du. Hitzarmena 3.1 EUaren (Bista Alai) hirigintzako aprobetxamendua ordaintzeari buruzkoa da eta Udalbatzarrera pasatuko onartu dadin.

6.- HAINBAT GAIARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Alkatak udal lanpostuei buruz, Olanen enpresarekin izaten ari diren negoziazioei buruz eta etorkinei buruzko hainbat informazio eman du.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarrak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.